

Bizi Baratzea

Orria

Lurrari begiratzen diogunon

3

Erreleboa

*Lurra ez dugu arbasoengandik
herentzian jasotzen; maileguan
hartzen diegu ondorengoei*

Abya Yalako jatorrizko herrien esatera

Onddo urte, elur urte

Ahuakatea

*Zein barietate
landatu eta nola
zaindu*

Posterra:
**SENDABELARRAK
KOLOREKA**



Zer egin udazkenean...

BARATZEAN

Udazkena eta negua urdinak dira

Landare askok uda baliatzen du haziak eman eta hedatzeko. Eguna moztzen hasi zen ekainaren bigarren erdian eta udazkenean sartzeko koska honetara iritsitakoan egunak hiru ordu eta lau minutu galduak ditu. Udazken honen amaieran beste ia hiru ordu galduak izango ditu. Orduan, neguaren sarrerarekin, eguna luzatzen hasiko da.

Uzta nagusi asko udan bildu da. Laboreak kasu, gure nekazaritzaren mozkin zaharrenak eta gaur ere uzta nagusia direnak: Euskal Herriaren hegoko aldean garagarra, oloa, zekalea eta gariarenak dira paisaiaren margo behinenak.

Udan bildu dena, udazkenean ereingo da hurrengo udan jasotzeko. Udazkena jendeak zuhaitzen hostoaren

kolore mudantzarekin eta soiltzearekin lotzen du. Eta esaerak ezin argiago dio: *hostoak lurrera, garia lurrera*.



lamiot CC A-SA CC

Udazkeneko eta neguko egun motzenak, berriz, beste mozkin jende batek

alaiazaziko dizkigu. Ez aspaldi jarri eta oraintxe lurrean hazi eta hazi ari direnek: porru, orburu, kardu, erromanesko, aza, azalore, buru aza, brokoli, hosto- edo zuhain-aza, Brusela aza, aza gorri eta abarrek.

Udazken-neguko hotzaren zaleak dira landareok eta hurrengo uda etortzerako garatu, tontortu eta loratuko dira. Bitartean, baina, paisaia berri bat ekarriko digute. Ez da laboreen berde edo hori kolorekoa izango. Udazkeneko eta neguko baratzearen kolorea urdina da. **Aza gorria izan ezik beste guztiak urdinak dira.** Udazkena eta negua urdinak dira.

Oraindik ere jartzeko ez duzu berandu, neguko hotza beranduxeago etorriko den itxaropenarekin jarri, jarri landareok oraindik ere. ●



Jakoba Errekondo

BASOAN

Hostoak lurrera, garia lurrera



Dani Blanco / ARGIA CC BY-SA

Egunak laburtu ahala somatzen dute zuhaitzek biluzteko garaia. Hotza bada, azkar erantziko dituzte hostoak, eta epel bada, mantso. Neguko haize eta hotzen kalteak gutxitzen dituzte horrela. Hostogabetzea baina, milaka urtetan findutako urratsen eskaleta da.

Klorofilaren berdea haustean azalduko dira lehenago ere hor zeuden karotenoiden horiak. **Orduan hasten dira hostoetan metatutako gaiak enborrerantz bideratzeko eta txortena adarretik bereizteko lanak.** Baita liluratzen gaituen kolore eztanda ere. Kasu egin urkien, sahatsen edo zurzuri horitasunari.

Hostoen gorriak bestelako azalpena du. Propio udazkenean sortzen diren antozia-

ninek ematen diote kolore gorria likidanbarrari edo haritz amerikarrari. Gorritz jan-teak gaien enborrerako bidea errazten du. Gorriak gainera, horiaren aldean intsektu gutxiago erakartzen ditu, eta hala xomorroen kalte gutxiago jasan ohi dituzte gorri kolorez hostogabetzen diren zuhaitzek.

Arre kolorea nagusitzen denerako ondo gordeak dituzte zuhaitzek hostoetan zeuden gai gehienak. Ondoren txortena adarretik bereizi, eta dantzan aireratutako hostoak orbel bilakatuko dira, hostoen hondarrak lurreratze bidean jarritz.

Udazkenean baliatzen dugu guk ere orbel; azpietarako edo zuzenean luartuta, soro eta baratzearen ongari erabiltzeko. ●

Iñaki Etxebeste

HAZIEKIN

Zuritzeko garaia

Udazkena zuriketa garaia da. Barrunak, artoa, bainak, porruak, tipulak, errefauak, arbiak, azenarioak, letxugak eta beste hainbat labore lehor daude gure ganbaran, uzta jaso ondoren babestu ditugun tokian.

Baratzezain trebatuak badaki baineak, silikulek, galburuek, artaburuek eta abar gordetzen dituzten haziak askatzeko modurik onena udazkenean izaten dela, lagunekin batera mahai inguruan eta sutondoan. Beti izango du prest horrelako zakukada bat familiako edozein bazkaloste emankor bihurtzeko eta lagunen eskuak okupatuta izateko landareen estalki horiek igurtzen edo kraskatzen.

Baina, lagun arteko topaketetan burutu ezinezko uzta oparoa duelako larri dabilenak lasai hartu dezake, edonoren eskura dauden sistema ugari daudela

jakinda. Nire gogokoena, bere eraginkortasunagatik, **oihal baten gainean material guztia eguzkitan jartzea da, eta traktorearekin edo autoarekin behar beste aldiz gainera pasatzea**, kurruskari daudenean. Ez kezkatu, ez dago hazia birrinduko duen traktore-gurpilik.

Dantzatzea, zapatapean ibiltzea, edozein tresnarekin kolpeak ematea, hala nola makila batekin edo sardearekin, oso erabilgarria eta azkarra da.

Emaizta ez da esku askok kontuz eta mimoz egiten dutena bezain garbia, ezta hain dibertigarria ere, baina emaitza duina lortuko dugu haizagailuen, ilelehorgailuen edo goizeko brisaren laguntzarekin hondakin zikinak hegan bidalita eta gure haziaren tamainara egokitutako bahearekin errematatuta, uzta behin betiko gordetzeko. ●



Dani Blanco / ARGIA CC BY-SA

SENDABELARREKIN

Sendabelarren koloreek diotena

Zuria, horia, laranja, gorria, arrosa, urdina, morea eta berdea, zortzi kolore guztira. Berdearen barruan baina badira berde anitz, beste zortzi bai gutxienez. Zuri-horiak (kamamila), laranja-gorriak (pasmobellarra), gorri-arrosak (zaingorria), urdin-moreak (birika-bellarra) eta zuri-berdeak (ezkaia) ez aipatzeagatik. Gizakiak pantonea asmatu aurretik naturak kolore asko zituelako eta aski ezberdinak.

Agerkari honetako erdiko posterean sendabelarrak hurrenkeran ipintzerakoan irizpide alfabetikoak dirudi

serioena, izen botanikoari erreparatuta egindakoak ere bai, baina kolorearen araberrako sailkapena ez da apeta estetikotik hutsa. **Orain badakigu pigmentu horiek guztiek jarduera biologikoa dutela gure gorputzean**, oraindik oso ongi ezagutzen ez duguna. Flabonoideak eta antozianinak dira akaso gehien ikertu direnak eta antioxidatzaileak izateaz gain antiinflamatorioak direla ere ikusi da. Ez dakigu ordea uretan, oliotan edo janda, zein eratan ote diren bioeskuragarrien; asko daukagu ikertzeko oraindik.

Sendabelar guztien jatorrian, oina-



Pexels Anna Pou

rrian edo loratzearen ondorengo garaian berdea da nagusi ia beti. Badirudi berderik gabe ez dela beste kolorerik sortzen, jatorri berde batetik datozela sendabelarrak. Hausnarketa garatuta berdea sendagarri dela ere esan dezakegu, bada esaera bat Alemanian uste hau indartuko diguna: *“Grün heilt die Sinne”*, hau da, berdeak zentzumena sendatzen ditu.

Pantonearen beste muturrean beltza daukagu baina beltza sendagarritzat jotzea ez da samurra. Alderantziz, zenbat eta beltzago, ubelago edo ilunago orduan eta litekeenago pozoitsua izatea. ●

Sasoiko lan guztiak eta ilargia urte osoan: bizibaratzea.eus



Adierazi ezin diren gauzak atsegin ditut: ahukate baten dasta, gardenia baten usaina... Barbara Streisand

LIBE GOENAGA ARRIETA

Lahardi baserrian (Getaria, Gipuzkoa)



📷 Dani Blanco / ARGIA CC BY-SA

“Ahuakatea ez da moda txarra”

—  Eli Pagola Apeztxea

Noiz landatu zenituzten lehenengo ahukateak? Ahukate arbola gure aitak, Jon Goenagak, ezagutu zuen gaztea zela Nikaraguan, eta, ondoren, berriz topatu zuen Kalifornian.

Duela 40 bat urte-edo ekarri zituen arbola batzuk eta etxe ondoan sartu. Bertatik fruituak jasotzen hasi, gustatu eta landare gehiago ekarri zituen. Lehen plantazio hartatik hamar bat arbola edukiko ditugu. Ahukateak lan handia du, eta duela urte gutxira arte ez da oso estimatua izan. Jaio nintzenetik ezagutu dut ahukatea etxean baina ez zitzaidan gustatzen, ezta bisitan etortzen ziren askori ere.

Hala ere, zuen aita tematu zen.

Bai, asko gustatu zitzaion, asko informatzen da eta bazekien Erdialdeko Amerikan, adibidez, oso zabaldua zegoen elikagai bat zela, bere osasun onurak ezagutzen zituen, hemen, Ipar Euskal Herrian estimua bazuen... baina konsumo dendez harago ez zuen eskari handirik. Kontuak kontu, duela beste 20 bat urte edo, saiatu zen berriz ahukate landaketa bat jartzén, baina neguan dena izoztu zen; duela hamabost urteko beste zuhaitz batzuk, ordea, bizirik daude oraindik. Duela bost bat urte beste saiakera bat egin genuen, eta horietako dezentek bizirik jarraitzen dute fruta ondo emanez. Orain, berriz jarri ditugu. Ez da erraza zuhaitza haztea baina behin hazita prozesu polita da.

Gaitzik ateratzen zaio?

Ahukateak gaitz dezente edukitzen du: onddoa harrapatzen du, hotzera ez da ondo egokitzen, hezetasunera ere ez, ezta ur kantitate handira ere, eta are gutxiago idorrera. Horregatik esaten da oso arrisksua dela ahukatea. Sojarekin batera, mundua gehien kutsatzen duen laborea da monolaborantzara bideratutako hektarea asko daudelako eta dituen premiengatik (Mexiko da ahukate ekoizle handienetakoa).

Klima aldaketaren sintoma ere bada hemen ahukatea ondo haztea eta hori kezagarria da. Duela zenbait urte pentsaezina izango zen hemen dauden ahukate landaketak ikustea.

Jendeak ez zuen ezagutzen eta ez zion estimu handirik. Noiz hasi zen goraldia? Hamar urteko eboluzioa izan da. Dietaren kulturak gora egin duen honekin eta esaten denez super-elikagaia dela eta omega 3 asko duela, oso modan dago. Orain arte ia dena esportatua zen, Iberiar Penintsulan, hegoaldean baino ez zen lantzen. Orain penintsulako eremu askotan ekoizten da.

Moda azkarragoa da arbola baten hazkuntza baino. Ahukateak eutsiko dio? Nik uste erabat moda kontua dela, eta hori ikus daiteke Iberiar Penintsulan egon diren hainbat landaketetan; adibidez, Valentzian orain arte laranjak garrantzia handia zuen, eta orain, laranjondo asko ahukateondoekin ordezkatzén ari dira eta ez da laranjak onurarik ez duelako. Ez da moda txarra osasuntsu jatea, baina bai, moda da. ●

Ahuakatea



—  Jakoba Errekondo

📷 Adobe Stock

📷 vecteezy.com

🍷 Fruitu tropikala

Ahuakatea (*Persea americana*) munduko hainbat eskualdetan hazten den fruitu tropikala da. Fruitu gutxiak bezala proteina eta batez ere koipe on ugari eman ditzake. Elikagai aberatsa da eta era askotara maneiatu daitekeenez, gastronomia maila guztietan erabiltzen da. Ahukate izena gaztelaniaren *aguacate*-tik dator eta hura *ahuacatl* hitz aztekatik, zeinak “barrabila” esan nahi duen. Aztekontzat ugalkortasunaren fruitua da. Maiek, berriz, afrodisiako gisa erabiltzen dute.

🍷 Euskal Herrian

50 bat urte besterik ez dira izango Euskal Herria ezagutu zuenetik. Badira ahukateondo zaharrak: aipagarriak, adibidez, Mutrikuko kai gaineko bi aleak. Duela 40 bat urte hasi zen jendea batean eta bestean ahukateondo aleak landatzen. Batzuk bizi dira, baina bidean asko galdu dira. Izandako akatsak landarea ez ezagutzearen ondorio izan dira, batez ere. Hotzarekin duen joera eta barietate eta mentuoin aukera ezagutzetik etorri da buelta. **Gero eta toki gehiagotan** ikusten dira ahukatediak eta joera hori Euskal Herriko kostaldeko klima ozeaniko epeleko lurraldeetan erruz hedatuko dela aurreikusi daiteke.

🍷 Arbola sortzeko

Ahukateondoa sortzeko **bi bide nagusi** daude:

- Hazitik** Hazai arruntetik sortutakoan berez ez dakigu zer nolako arbola eta fruitua etorriko diren. Hautaketa bidezko hazi “hobetuak” badaude, eta horietatik sortutakoek ezaugarri batzuen hobetzea dakarte.
- Klonetik** Ahukateondo mota jakin batzuk lur baldintza berezietara (buztina, gatza...) egokitzeo duten gaitasunagatik erabiliko dira. Horiek aldaxka bidez ugaltzen dira eta amaren ezaugarri berberak garatuko dituzte. Hauek dira hemen erabilienak: *Dusa* lurreko onddoei aurre egiteko gai da, baina lur buztintsuetan gaizki bizi da. *Duke*-7-k bi urtez behin emateko joera du. *Toro Canyon*-ek lurreko onddoei aurre egiten die, ale handiak ekartzea sustatzen du, eta sortuko duen arbola txikiagoa eta trinkoagoa izango da.



✓ Ondoren txertatu egin behar dira. Txertaketak fruitua azkar ematen has-tea sustatzen du; klonetan txertatuta lehen aleak bigarren urterako etorri daitezke. Era berean, fruitu gehiago sortzeko joera izango du.

📍 Non landatu

- Orokorrean -4°C ederki eraman ditzake, baina hortik behera asko sufrituko du eta hil daiteke. Hotzarekin sufritu dezakeen tokietan errenkada artean lehar torto mordoio-luak hazten dituzte.
- Ura:** 1.000 litro/m² gutxienez behar du, Euskal Herri hezean hortik gora egiten du urtero.
- Lur** oso buztintsua ez du gogoko. Lur astuna edo buztintsu samarra bada, metro erdiko tontor bat egin eta haren gainean landatu.
- Pittin bat azidoak diren lurrak** gustatzen zaizkio eta horretara eraz eramaten du behar duen ongarririk organiko ugariak.
- Noiz:** Landaketa egiteko udaberria sartua egotea kome-ni da, beranduko izotzez alde egiteko. Apirileko ilbehera da sasoi egokiena, baina udaberri eta uda osoan ere landatu daiteke.
- Tartea** hautatzeko mentuoina ezagutu behar da, baina 5-6 metro eman gutxienez, eta zabalagoa bada hobe; hain gogokoa duen eguzki gehiago izango du arbolak. Inguruan eraikuntzaren bat badu, gutxienez 5 metroko tartea utzi.

🌸 Loraldi bitxia

Ahuakate loreak **hermafroditak** dira, bi sexuak dituzte, eta dikogamia eta protoginia erakusten dute, hau da, lehenik organu emea irekiko da eta, ordu batzuk geroago, arra. Ahukateondoaren **irekiera sinkronizatua** da, beraz, lore guztiak aldi berean irekiko dira, egoera emean edo arrear. Horrela, autopolinizazioa ez da nahikoa uzta oparoak lortzeko. Polinizazio gurutzatua sustatu behar da.

Bi motatako ahukate barietateak daude, A eta B:

A multzokoek lorearen aieka emea soilik goizez irekitzen dute eta hurrengo egunean arratsaldean aieka arra.

B multzokoek lorearen aieka emea arratsaldean irekitzen dute eta arra goizez.

Polinizazio ona gertatzeko eta fruitu asko eta handiak izateko **bi multzotako arbolak aldamenean jartzea komeni da**, horrela baten emea irekita dagonean bestearen arrak polena askatuko du eta ernaldu.



📷 Dani Blanco / ARGIA CC BY-SA

🌸 Barietate ezagunenak gurean

A multzokoak

HASS
Azal oso ilun zakarra du. Azarotik martxora biltzen da.

PIKERTON
Azal argi zakar antzekoa. Abendutik otsailera biltzen da.

REED
Azal leuna du. Apiriletik uztailera jasotzen da.

B multzokoak

FUERTE
Azala oso leuna du, berde argia. Irailetik abendura biltzen da.

BACON
Azala oso leuna du, berde iluna. Urritik urtarrilera biltzen da.

🌱 Mantenurako gakoak

- Ongarriketa** zaindu fruitu ale ugari eta handiak emateko: 45 kg simaur ondu arbolako.
- Inausketa:** Bigarren urtetik hasita, gorantz doazen adar nagusiak **kimatu** eta muturreko kimua kendu: horrela albotara haziko diren adarrak indartuko dira, fruitua eskuera emango digutenak. Inausketa udaberri eta uda osoan egin daiteke. Beheranzko adarrak enbarazu egiten dutenean moztu, bestela utzi. Adaburua argitu eta aire igarotzea errazteko adar batzuk moztu daitezke.

🍷 Laborari egin nahia errazteko tresnak

—  Jenofa Berhokoirigoin

Lehen sektorearen paradoxa: geroz eta etxalde gehiago daude segidarik gabe, eta laborari izan nahi dutenek dorpea eta trabaz bete da dute bidea. Arrazoiatariko bat izan daiteke sistemikoa, finean, diruz eta politikaz sustaturiko nekazaritza ereduak ez dituelako baserri andanaz betetako landa eremuak nahi. Agroindustriak bakar batzuen esku diren lurren eta kabalen pilaketa du ardatz. Datuei begiratzea besterik ez dago laborarien desagertzeaz ohartzeko:

1970ean, Ipar Euskal Herrian	
🍷 8.500 baserri izatetik	➡️ 🍷 3.500 izatera pasa dira
Nafarroako	
🍷 10 nekazaritik	🍷 6k adierazi dute ez dutela erreleborik
EAEn	
2009tik 2020ra	
🍷 %21,8 jait si da	🍷 etxalde kopurua
🍷 %10,4ak	40 urte baino gutxiago
🍷 %30ak	65 urte baino gehiago
Europar Batasunak	🍷 6,4 milioi etxalde
galduko ditu 2040 urtea bitartean	
10,3 milioi izatetik	➡️ 3,9 milioi izatera.

Baserriaren eskurapena izaten da oztopo-rik potoloena; dela prezioagatik edo erreleboa adosteko zailtasunengatik –lurrak auzo nekazariei bideratzea izan ohi da anitzetan joera–.



ELENA AGUERRE
Lurrama 2025eko gazama

📍 **Baigorri**
(Nafarroa Beherea)

Lanbidea aldatu eta zuen proiektua garatzeko hautua egin zenuten. Biologia saillean egin nituen goi-mailako ikasketak. Ondotik bulegoko lanean hasi nintzen Euskal Herriko Laborantza Ganbaran, baina laster lan praktikokoaren eskasa

sentitu nuen. Beraz, 25 urte aldera, etxaldeetan langile gisa hasi nintzen, lehenik kabalekin eta ondotik fruitu/barazki ekoizpenean. Zentzuzko ofizio konkretua atzemana nuen, ene bidea!

Laborantza herrikoian eta iraunkorrean zabilta. Betidanik, gure aktibitateek naturarengan duten eraginaz ardua handia dut. Ene laborantza hautuak zentzu osoa ukan zezan, laborantza ekologikoaren hautua egin nuen hastapenetik. Jendea elikatzeko eredu xuxenena baita enetako.

Nola definituko zenukete laborantzán instalatzeko bidea? Biziki zaila da etxalderik

LURZAINDIA

Lurrak kolektiboki erosteko sortu zuten GFA Lurra 1980eko hamarkadan Ipar Euskal Herrian, 2013an **Lurzaindia** bihurtuko zena. Funtzionamendua sinplea du: elkartasunez, herritarrek akzioak erosten dituzte eta diru horri esker etxaldean jabe bihurtzen da Lurzaindia, ondotik, laborariari uzteko lan-tresna. 40 lagunez gora instalatu dira horrela, ia 3.800 akziodunen laguntzari esker.

AMILLUBI

Bokazio eta funtzionamendu berarekin dabil **Amillubi proiektua**, Biolur elkarteak sustaturikoa. Zestoako (Gipuzkoa) Amilibia baserria eta lurrak erostea du xede, ondotik ikuspegi komunitariotik bideratzeko bertako ekoizpena.

EUSKAL HERRIKO LABORANTZA GANBARA

Erretretadunen artean, etxaldea gazteago baten esku ikusi nahiko lukeen andana bada. Baina segida hartzeko pertsona egokia kausitzea ez da beti erraza, baserria bera uzteko urratsa handia delako, besteak beste ekonomikoki, juridikoki, baita emozionaliki ere. Bide horretan laguntza ekartzen dabilta laborantza herrikoia-aren aldeko eragile anitz. Horien artean da **Euskal Herriko Laborantza Ganbara** (EHLG). Hiru langile dabilta instalazioaren sailean lanean eta horietariko bat espezifikoki erreleboaren gaia lantzeko. Kolektiboki zein indibidualki lan-tresnaren eskuz aldatzeko bidean laguntzen dabilta.

TREBATZECO GUNEAK

2016an egituratu zen Ipar Euskal Herri mailan **Trebatu elkarte**a, laborantzako aktibitatea esperimentatzeko aukera ematen duena. Gaur egun, segidarik gabeko bost etxalde ditu esku artean, eta bertan trebatzen dabilta orotara sei gazte. Urte batetik hiru urtera arte egon daiteke bertan, eta aktibitatea garatzeaz gain, laguntza juridiko, finantzario eta sozialaz gozatzen dute. Elkarreak badaki: laborantza mundukoak ez direnak izanik, jende sare horren parte izateak laguntzen ditu, irauteko berme inportantea izan ohi delako elkar laguntza. 2016az geroztik 21 lagun pasa dira bertatik eta horietatik hamaika dira instalatu. 2025 bukaeran beste hiruk hartuko dute etxalde baten erreleboa. Laborantza herrikoian berezitutako formakuntza bat ere proposatzen dabil Trebatu, denbora gehiena etxalde batean pasatzeko aukera emanez, beti ere etxaldeak bizirik segitzeko helburuari atxikita.

Izen bera hartuta, Gipuzkoan ere badabilta, **Landaola** Gipuzkoako landa garapen elkarte-aren federazioak bultzatuta, beste hainbat egituren babesarekin, baina ez du zerikusirik Iparraldeko Trebatu-rekin. Segidarik gabeko zenbait etxalde esperientziari lotu eta bakoitzean dabilta trebatzen, bi urteko zikloan. Baserriko lanaz gain, formazio atal zabal bat ere jasotzen dute.

Instituzioen partetik ere badira erreleboa bultzatzeko laguntzak, besteak beste, **Gaztenek** programa EAEn edo **Lurberri** izeneko Nafarroan. Baina, hutsuneak izanik, ekonomia soziala eta solidarioa hor dabil, hutsuneak bete nahian. ●



Koloreak sendabelarretan

Zuria, horia, laranja, gorria, arrosa, urdina, morea eta berdeak. Saikapen irizpide bat da, jolas bat ere bai. Pigmentuen atzean jardura biologikoa ere badago, ordea, eta merezi du hortik begiratzea. Zuritik gorriainoko sendabelarrek flabonoideak dituzte eta arrosatik morerakoek, berriz, antozianinak; hala, antioxidatzaileak eta antiinflamatorioak direla esaten da. Berdea denek dute oinarrian, berderik gabe ez da sortzen kolorerik gero. Hemengo askotariko berdeak sendagarriak dira denak. Zuk zenbat ikusten dituzu?

Testuak: Garbiñe Larrea Iturralde Argazkiak: Dani Blanco / ARGIA CC BY-SA Diseinua: Maitane Gartzandia

Artzain-zakua
Capsella bursa pastoris



Elorri zuria
Crataegus oxyacantha



Milorria
Achillea millefolium



Intsusa
Sambucus nigra



Kamamila
Chamaemelum nobile



San Jose lorea
Primula vulgaris



Zolda-belarra
Symphytum tuberosum



Mihilua
Foeniculum vulgare



Apo-belarra
Verbascum thapsus



Txikori-belarra
Taraxacum officinale



Santio-belarra
Hypericum perforatum



Eztul-belarra
Tussilago farfara

Ilena
Calendula officinalis



Pasmo-belarra
Lysimachia arvensis



Malba
Malva sylvestris



Egur-belarra
Lythrum salicaria



Hirusta gorria
Trifolium pratense



Zaingorria
Geranium robertianum




Birika-belarra
Pulmonaria officinalis



Izpiliku fina
Lavandula angustifolia



Bioleta
Viola odorata



Txipa-belarra
Mentha aquatica



Salbia
Salvia rosmarinus



Oreganoa
Origanum vulgare



Negakina
Fumaria officinalis



Astalarrosa
Rosa canina



Txilarra
Calluna vulgaris



Lapa-belarra
Arctium lappa



Lupulua
Humulus lupulus



Izei zuria
Abies alba



Bostorria
Potentilla reptans



Mendabeltza
Mentha spicata



Garraixka
Melissa officinalis




Luisa-belarra
Aloysia citrodora



Itsas mihilua
Crithmum maritimum



Asuna
Urtica dioica



Pixa-belarra
Lepidium latifolium



Horma-belarra
Parietaria judaica



Azeri buztana
Equisetum arvense



Berbena
Verbena officinalis



Erromeroa
Rosmarinus officinalis



Plantaina
Plantago lanceolata



Erramua
Laurus nobilis



Ezkaia
Thymus vulgaris



ONDDOAK

Fungi erreinua

Onddoekin gozatzen, jan gabe ere

Landareen %90ak ditu **sustraietan onddoekin elkarrekintzak**.

Onddori ez balego landare horiek denek arazoak izango lituzkete elikatzeko.

Munduan onddoen 350 espezie inguru dira jangarriak.

Oso-oso gutxi.



kontuan hartuta 2 milioi espezie daudela gutxienez



Onddoak hurbilago daude animaliekiko, landareekiko baino.

Hala diote azken filogenia ikerketek



Lurrean onddo bat ikustean, gogoan izan lurrazpian (25-50 cm-ra) dagoela bere gorputzaren zati handiena, **MIZELIOA**

Aldizkari osoan hizki mota honekin jarritakoak esaera zaharrak dira, ezagutzen al dituzu?

Liburua
Setas tóxicas y comestibles comparadas.

Guía para su recolección (Perretxiko toxikoak eta jangarriak. Biltzeko gida)

Liburua kaleratu berri dute **Pedro Arrillagak eta Itziar Mayozen Aranzadi Zientzia Elkartearekin**. Ospitaleetan onddo intoxikazio kasuak direnatan Arrillagari deitu ohi diote zehazki ze espezie jan den detektatzeko. Liburu honetan parez pare jarri dituzte jangarriak eta horiekin nahasten diren toxikoak, eta bereizteko zein aldagaiekin erreparatu behar den azaldu dute.

Urriaren 31n gaiari buruzko hitzaldia emango du Arrillagak Donostian: 18:30ean Aquariumeko aretoan.

Argazki erakusketa

"Gipuzkoako dibertsitate fungikoa"

Donostian urriaren 20tik 31ra, arratsaldetan, Gipuzkoako Argazkilari Elkarteak.

Hitzaldia

Galtzeko arriskuan diren onddoen zerrenda gorria osatzen ari da Iberiar Mikologia Elkarteak: liburua udazkenean kaleratuko dute.

Ibai Olariagak gaiari buruzko hitzaldia emango du **urriaren 30ean** Donostian, **18:30ean** Aranzadiko Elosegi aretoan.

Mikologia irteerak

antolatu ditu Aranzadik elkarteak, onddoak ezagutzeko.

Urriaren 25ean Añarbera (Errenteria, Gipuzkoa). Goizeko 9:00etan Susperregi jatetxearen aparkalekutik abiatuko dira.

Azaroaren 29an Getariako San Antonera (Gipuzkoa). Goizeko 9:00etan portuko Astillero jatetxe aurretik abiatuko dira.

Urtaro bakoitzean zabaltzen den Bizi Baratzea Orria etxean jaso nahi duzu?

ARGIAkoek astekariarekin batera doan jasoko dute. Gainerakoek, oraintxe duzue aukera, egin Bizi Baratzea komunitatekoa edo ARGIAkoa:

Nahi duzuna jaso, nahi duzuna ordaindu. Ekarpen horrekin, aldizkaria jasotzeaz gain, Bizi Baratzea proiektu osoa babestuko duzu.

eginbizibaratzea.eus

ARGITARATZAILEA: ARGIA (Komunikazio Biziagoa S.A.L.)
HELBIDEA: Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia. 20160 Lasarte-Oria
EPOSTA: komunitatea@bizibaratzea.eus **TLF:** (+34) 943 37 15 45
INPRIMAKETA: Antza Komunikazio Grafikoa
DISEINUA: Maialen Arana
LEGE GORDAILUA: LG D 185-2025 **ISSN:** 3045-7890
bizibaratzea.eus



Aldizkari honek ekoedizioaren baldintzak betetzen ditu.

EKOEDIZIOA:



BIDELAGUNA:

FEDE PACHA & Co

PREZIOA: 7 €



TESTUAK:



AZALEKO ILUSTRAZIOA:
Ione Larrañaga Gorritxo